



Aurtengo Inauterietan Zirko Mundiala etorriko da herrira /4-5

Ez da broma, ez. Zirko Mundiala izango dugu aurtengo inauterietan herrian, hori bai, herri-tarrek osatutako zirko paregabea izango da. Ttakunek aurten kon-parsa bat antolatu du adin guzietako herritarrentzako. Animatu eta hartu parte! •



Ehun lagunetik gora bildu ziren ostiralean udalaxe aurrean Palestinako herria jasaten ari dena salatzeko.

## Genozidioaren aurka

Lasarte-Oriako Gerraren Aurkako Plataformak deitu zuen kontzentrazioa ostiral iluntzean

Israeleko Estatuak Palestinako herriarekin burutzen ari den sarraskia salatzen bildu ziren ostiralean udalaxearen aurrean herritar ugari. Bertan irakurri zuten komunikatuan besteak beste honakoak esijitzen ditu LOGAPk: Israeliek Gazan egiten ari den eraso militarra gelditzea; 7.000.000 gorako errefuxiatu palestinarrei irtenbide justua ematea eta Eljri eta Aldundiari erantzun garbi bat ematea ekintza hauen aurrean. •



Hurrengo larunbatean, urtarrilaren 24an, Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideak Zabaletako plazan izango dira 12:00etatik 13:30era sinadurak biltzen.

## Harrera ona izan zuen hondakinen legearen aldeko sinadura bilketak

Lasarte-Oria Bizirik taldeak hondakinen gaikako bilketa intentsiboa ezarri, materia organikoaren bilketa sustatu eta honekin ongari naturala egin dadin Eusko Legebiltzarrean Herri Ekimen Legegilea (HEL) erregistratu zuen urte amaieran. Orain, Legebiltzarrean gai hau hizpide izan dezaten ekimenak 30.000 sinaduren babesa behar du.

Taldeko kideek Okendo plazan egon ziren larunbat eguerdiko 12:00etatik aurrera sinadurak biltzen eta pozik

agertu ziren lehen ekimenak izan zuen harrerarekin: "herri-tar askok erraustegiaren azu-arekin kezkatuta daude eta askok uste dute ezin dela ezer egin. Baina, ez da egia. Orain arte ekimen asko burutu ditugu legalki eta sozialki eta azken hau, HEL, oso garrantzitsua da. Legebiltzarrean hondakinen legeari eusten badiote eta guk aurkeztutako proposamena mantentzen badute, erraustegiak ez luke lekurik izango Euskal Autonomi Erkidegoan". •

### ALBISTEA ■ 3

**D3M plataformak aldaketaren alde sinatzeko eskatu zuen larunbatean**

### ALBISTEA ■ 3

**Trafiko aldaketa hurrengo egunetan Kale Nagusiko 29ko eraikina botako dutelako**

# ELUTXETA

 **SAGARDOTEGIA**

**ASTEARTETIK  
IGANDERA  
EGUERDITAN  
IREKITA**



Oztaran bailara · Urnieta · Tel.: 943 556981

**Kirol emaitzak**

**Futbola**

Ordizia - Ostadar (II. Erregionala, igoera fasea) ..... 1-1  
 Ostadar - Touring (Emakumezkoen Liga, kopa) ..... 4-0  
 Ostadar - Ilintxa (I. Jubenila, igoera fasea) ..... 1-1  
 Segura Goierri - Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) .. 1-2  
 Ostadar - Hernani (Kadeteen Ohorezko Maila, kopa) ... 1-1  
 Añorga - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11, txapeldunen fasea) ..... 3-0  
 Sporting de Herrera - Ostadar (Infantil Txikia, kopa) .... 1-3  
 Beasain - Ostadar (Alebinak) ..... 3-4

**Areto-Futbola**

Aldaz H.K. - Suisaco Armentia (Euskal Liga) ..... 4-1  
 ISU Leihoak - Azpeitiako A.F. (Gipuzkoako Liga, I. Maila) 2-2

**Herriko txapelketa**

Epel- ISU Leihoak ..... 1-5  
 Siglo XX - Izarra ..... 2-5  
 Ainhoa- Oria Txiki .... 17-1  
 Ilargi - Obelix ..... 3-3  
 Danena - Katanga ..... 3-5  
 Biyona - Tragoxka ..... 3-6  
 Morrison - Mayi ..... 1-15  
 Lurra XXI- IOB H.K. (bertan behera geratu da)  
 Oria krist. - Buenetxea . 1-18  
 Izkiña - Okela ..... 4-0  
 Jordi - Viña del Mar ..... 4-0

# Txirrindularitza eskola martxan

**B**uruntzazpi hastapen eta betekin handiko eskolak lehengo asteazkenean hasi zituen infantil mailako entrenamenduak Lasarte-Orian. Usurbilgo txirrindulariekin osatuko duten talde honek Ramon Unanueren esanetara egingo du lan eta errepidea, ziklo krosa eta BTTn trebatuko dira. Entrenamendu batzuk bakoitzak bere aldetik egingo baditu ere, maiz elkartuko dira bi herritako txirrindulariak.

Era berean, txikienek, alebin eta benjamin mailakoek, urtarileko lehenengo asteburuan hasi zituzten entrenamenduak. Hauek Urbileko aparkalekuetako batean biltzen dira ginkanak egiteko eta Alex Urkiolaren eta Xabier Carbayedaren laguntzaz, txirringaren erabilera eta ezagutzatza hobetzea da helburua.

**Lehenengo ginkana**

Txirrindularitza eskola martxan jarri orduko, hasi dira hainbat ekintza antolatzen entrenamenduez gain. Errepidera jotzeko asmoa ere badute, baina hasteko larunbatean ziklokrossa eta BTT uzartu zituzten. Goizeko 10:30ean bildu ziren aipaturako aparkalekuan eta ginkanarekin hasi ziren. Ondoren parkin horretatik hasi eta zirkuituxo bat egin zuten goian dagoen zelaian. Hirugarrenez ondoan dagoen parkean aritu ziren hainbat ibilbide-



Goiz pasa ederra izan zuten hurbidutako haur guztiek. Ginkana eta ibilbidetxo bereziak egin zituzten txirringarekin.

txo egiten, bihurguneak ematen eta bidean topa ditzaketen oztupoak saihesten ikasteko.

“Kirol disziplina barneratu nahi diegu haurrei eta txirrindularitarako zaletasuna bultzatu” aipatzen zuen aurreko astean Alexek. Honelako ekintzak egiten jarraituz gero, ziur lortuko dutela, haurrek ederki gozatu baituzten.

Eskolan edo honek sortu duen zikloturista taldean parte hartu nahi dutenek izena emate orriak eskura dituzte Kima masajistan eta MKL dendan. •



**Kirolletako oharrak**

**LOKEko afariak**

LOKEko loteria-billeteen zenbaki irabazleak ondorengoak izan dira: 2365 zenbakiak Aginaga Sagardotegian lau afari irabazi ditu eta 8400 zenbakiak, berriz, Txintxardin Beltxa jatetxean lau lagunentzako afariak. Irabazleek 656715700 (Morales) zenbakira deitu beharko dute dagozkien akreditazioak jasotzeko.

**Udalaren kobratzea**

Udalak barkamena eskatu nahi die abenduaren 31n egin zen kobratze baten ondorioz kalteak izan diren udal kiroldegiko erabiltzaileei. Akatsa lehen bai lehen zuzenduko da kalteetuei kobratutako dirua bueltatuz.


**Ostadarreko zozketa**

Ostadarrek nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburu pasa zozketatu du eta zenbaki

irabazlea “el niño” loteriako azken lau zenbakiak bat etorri dena izan da: 8920. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegotik pasa edo 943360433 telefonora deitu beharko du.

**Igerilekua itxita**

Igeriketa txapelketa dela eta udal igerilekua datorren larunbatean, urtarrilaren 24ean, goizeko 9:00etatik 12:00etara itxita egongo da erabiltzaileentzat. Udal kirol instalazioko abonatuak Andoaingo (943-300147) eta Usurbilgo (943-373498) igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute.



## Bideo Lagunak dendak Ostadarreko nesken taldea babestuko du



Bideo Lagunak-ek beste urte batez Ostadar Kirol Fundazioko nesken kadete taldearen alde apustu egitea erabaki du, jada hirugarrena. Ostiralean, bi entitateek Bideo Lagunak denda, Donostia Etorbidean 2 zenbakian, sinatu zuten hitzarmena. Ostadarreko ordezkariek pozik daude sinatutako hitzarmen honekin,

“Denda honek nesken taldeko babeslea izateaz gain, Ostadarrek burutzen duen kirol egitasmoa gauzatzen laguntzen du. Modu batera edo bestera, herriko hainbat enpresa eta merkatarik ari zaizkigu laguntzen. Hauei ere eskerrak eman behar dizkiegu gure kirol egitasmoan sinesteagatik eta laguntzeagatik”. •

# D3M plataformak aldaketaren alde sinatzeko eskatu du

TXINTXARRI

Larunbat goizean Okendo plazan bildu ziren Demokrazia 3 Milioi plataformako kideak "abertzaleak eta ezker-tiarrak gara eta gaur hemen bildu gara ekarpen bat egin nahi dugulako aldaketaren norabidean". Euskal Herriak behar duen aldaketaren alde sinatzera joateko eskatu zuten.

"Gaur hemen bildu garenok ziur gaude gure herria ziklo politiko berri baten atarian dagoela. Ziklo berri hori atzeraezina dela guztiontzat, eta guztiok hartu behar dugula parte ziklo horrek zehaztapenean eta definizioan, batzuk azken 30 urteotako hondakinekin prestatutako "plater" berri bat aurkez ez dezaten" azpimarratu zuten. Honekin batera D3M plataformaren nahiak ere adierazi zituzten: "errepresioaren eta apartheid politiko eta instituzionalari erantzungo dion indarra izan; benetako aldaketa politikoa, eskenatoki demokratikoa; demokrazia nahi du, herri honetako gizon-emakumeen borondatea oinarri izango duena, Euskal Herriko hiru milioi biztanleren eskubide demokratikoen errespeta oinarrituko dena; elkarriketa eta negoziazio prozesu berri bat eraiki; gizarte eredu



Okendo plazan bildutakoek D3M plataformaren alde sinatzeko eskaera egin zuten.

aurrerakoi baten alde egin; espazio independentista eta aurrerakoa bultzatu; PNVk eta PSEk atzera begira jarri nahi gaituzten bitartean, D3Mk Euskal Herria aurrera begira jarri nahi du.

## Deialdia

"Konponbide demokratikoari beste aukera bat eman nahi diogulako gaude hemen, beraz. Euskal Herriko hiru milioi biztanleri bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitze eskubidea aitortuko dion eskenatoki demokratiko bat eraikitzeko"

adierazi dute plataformatik. Hautes elkarte gisa osatu ahal izateko, euskal herritarren sinadurak behar ditu D3M plataformak. Gipuzkoan esate baterako 5.700 sinadura inguru behar ditu. Horregatik, larunbateko bilkuran dei egin nahi izan zieten Lasarte-Oriar gutzietan sinadura eman dezaten: "alderdien Legea atzean uzteko; alderdi politiko gutzietan hauteskundeetan aukera berdintasunean parte hartze eskubidea izateko; eskenatoki demokratiko bati ateak zabaltzeko, eta, ondorioz euskal herritarrak beren etorkizun

naren jabe izateko eta herri hau aurrera begira jarri nahi dugula aldarrikatzeko."

## Nora joan sinatzera

D3M plataformaren alde sinatu nahi duen orok bi leku ditu horretarako: udaletxean, astelehenetik ostiralera egunero 08:30etik 14:00etara eta arratsaldean asteazkenean bakarrik 16:30etik 20:00etara eta Atsokabarreko Notaritzan, astelehenetik ostiralera egunero goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldean egunero 18:00etatik 19:00etara, ostirala ezik. •

OSASUNA ZENTROA

## Gaur inauguratzen da Osasun Zentro berria

Gaur eguerdian, Gabriel M<sup>a</sup> Inclan Osasun sailburuak, Lasarte-Oriako Beheko kaleko Osasun Zentro berria inauguratuko du.

Anbulatorio berriaren lanak 2006an hasi ziren. Elektrizitate horniketa arazok zirela eta, lanak atzeratu eta, azkenik, azaroan Lasarte-Oriako Udalak Osakidetzari Osasun Zentroa hurrengo 30 urteetan kudeatzeko eta erabiltzeko eskumena eman zion. Geroztik, ambulatorio zaharretik berrirako lekualdaketa egin dute.

Era honetara, Beheko kaleko eraikuntzako lehenengo bi solairuak osatzen duten Osasun Zentroak 1987an Hipodromo Etorbidean irekitakoa ordezkatuko du. •

SAN SEBASTIAN EGUNA

## Danbor hotsak Lasarte-Orian

Bihar, San Sebastian eguna dugu, Donostiako festa handia eta etxeko txikientzat festa eguna.

Hori dela eta, gaur arratsaldean 16:00ak aldera barrunba handia entzuten baduzue ez larritu, Sarriegiren doinuaren eritimoa jotzen duten Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastolako haurrek sorturako danbor hotsak izango baitira. •

## Trafiko aldaketa eta eskaileren etetea

TXINTXARRI

Aurreko astean hasi ziren Kale Nagusia 29ko eraikinean hustuketa lanekin, etxea bota ahal izateko. Urte amaieran 30. hamarkadan eraikin zuten Adarra kaleko etxea, Kontzeju Txikiko 5 eta 7 etxeak -Etxeberriatarran eta Duranen etxeak- bota zituzten.


Gaur berriz, Kale Nagusikoaren txanda da. Ondorioz, udaletik jakinarazi nahi dute, hurrengo egunetan, Beko Errota eta Kale Nagusiko gunean trafiko aldaketak egongo direla.

## Eskailera mekanikoen etetea

Bestetik, herritarrek jakin behar dute Loidi-Barren eremuko urbanizazio proiektuaren lanak direla eta, astelehenean hasi eta hiru astetan zehar itxita egongo direla Sasoeta auzora igotzeko Adarra kaleko eskailera mekanikoak. •



Kale Nagusia 29ko eraikina hustu ondoren, gaur hasiko da eraistea.



## EHPko afarien zozketak baditu irabazleak

Benigna Otero Garcia, Malika El Kadi, Monica Alonso Calvo, Jorge Guisado Gonzalez, Arianne Martin Duran, Enara Cumbres Casin, Patxi Urriza Escudero, M<sup>a</sup> Carmen Valdivia Barranco, Irati Galarzi Lizarraga eta Jose Ramon Najera dira Martin Berasategi jatetxean bi per-

sonetako afaria lortu duten hamar pertsonak.

Pedro Rodriguez, Michelin enpresako komunikazio eta arduradunak atera zituen izenak. Jesus M. Zaballos Gazte-ria eta Festetako sailleko buruak eta Xabier Goitia Kultur etxeko arduradunak gainbegiratu zuten zozketa. •

# Zirko Mundiala etorriko da Lasarte-Oriara inauterietan

Adin guztietarako festa antolatu nahi izan du Ttakunek inauterietan  
Larunbat arratsaldean desfilea antolatu du herrirako beste zenbait  
elkarterekin batera. Ibilbidean egingo dituzten geldialdietan eta  
Okondoren ekitaldi txikiak egiteko asmoa dute konparttsako kideek

**TXINTXARRI**

Itisi dira aurtengo inauterietako edo arratsaldeko prestaziotik garaiak. Inauteri festaren ezagueria traspasatzen da. Gehiegi-kerrik egiteko aukera ederri dugu. Nor bera izateari utzi, eta beste nor nahitan bihurtu gaitzake. A ze pagokait!

Ez da denbora asko oraindik herri honek plaza hartu zuela. Artistak ezkutu asko, eta lotsa gutxi dagoela gure artean ikusi eta frogatu ahal izan genuen. Oraingoan pentsatu dugu energia horri herdoiltzen utzi gabe, bertze ere kaleratzea. Zer hobe inauterietatik baino?

Oraingoan prestatu dugu festa ederari! Adin guztietatik parte harteko moduko jai mundialak kalejira eta altxaketak. Zierko Mundiala etorriko da Lasarte-Oriara otsailaren 21'tean! Txiki eta handietan, neska eta mutilentzat, biloba eta abonentzati... zator eta gozatu gurekin!

**Herriarekin eta elkarteei parte hartzeko da!**  
Aurren Ttakun Kultur Elkarteak eta Zabaleta Auzolanean bat egite dute inauterietan eta bate-



Herriarekin egitea ez zait inori eskatuko, lasai, mozorroarekin nahikoa da!

ra egingo dute desfilea. Elkarte honetat gain, herrirako beste elkarte eta erakunde batuekin jarri gara harremanetan eta denon artean festa eraldio hau aurrera aterazen dugu. Elkar-teez gain norbanakoei luzatzen diegu gonbitea gurekin batera parte hartu dezaten. Dagoeneko batzuegana jo dugu eta oraindik gauzak zabazten ari bagara ere, denek azaldu dute jarrera positiboa; denek dute gozoga festa eraldioi polit bat antolatzea.

**Zirko Mundialaren partaideak**

Gure Zirko Mundialean munduko animalia domatzaile onena izango dugula esa dezakegu dagoeneko. Zirkorekin inguruan beti ibiltzen dira "ferriak" eta gurean ere noski, bertan izango dute lekuko bat. Benz zieruko dezaguru tobiola mundiala eta zoragarri bat izango dugula opari izagarri, harigari, bihi eta gurekin, gurek zuzentzeko eta zentzu positu jarriko dituzte.

Hauetz gain, Indiako liliaren erraldioak, Malasiako eta zaldiaik eta Serengetiko krokodiloak karibeko lorioekin batera

**Parte hartzeko modu asko eta errazak daude**

Desfile honetan parte-hartzeko ez da asko konplikatu behar, inajina dezalezuzten edozer izan zaitzakeite. Hori baita inauterietan duden maial. Aukera ederri dugu ondoko pasazeko eta gainera txiki-txiki hainbeste litaruzten gurekin batera bihurtzeko; gizon indar-taria, komposonista, pallazo... Ze zirko mota izango litzateke animaliarik gabe? Familia osoak badira, era hobeto, benz deialdia egin nahi dugu familei kalera alera datuzten gurekin animaliaz mozortuta (lehoiak, elefanteak, lokak, zaldiaik, borsak trizikloak...)

**Ttakunek, gantza eskainiko du**  
Izema emateko Ttakunetik pasa behar da, eta horretarako azken eguna otsailaren 11a da. Baina lasai, utzirik 23an bilera bat egiteko da arratsaldeko 19:00etan Erribera kaleko lokalean (Ttakuneko lokal zaharrean) gurekin parte hartu nahi dugunekin pertsonaiaik zehazteko eta behar duen laguntza eskaintzeko. Izan ere, Ttakunek nahi izanez gero, noski, laguntza eskainiko die behar duenari deialdi garazeko, materialak, korzako, mozoro erredak eta baita inauterietan parte-hartzen gurekin batu eta emateko...  
Inauterietan mozorroantze gero, festa gehiago gozatzeko da. Baina ez bazara ausartzuzten jendearekin haru-emaria izaten, lotsa ematen dituzkio edo, lasai, beste modu batean parte-hartzeko aukera izango dugu. Txolera izan zaitzake, edo dekoratzailea edo beste edozein...




izan nahi baduzu, ez izan zalantzarik, deitu edo pasa Ttakunetik eta hartu parte gure Zirko Mundialean!

Gure proposamena lanbidean egun pasa ederra egitea da. Gaiak galditako eguerdiko 13:00-erako egin dugu. Gure Bilguneko Lokalean (Inigo de Looia kalean), bertan jantzi aritzen ikutuare eman, aurpegi margotu eta bazkari moduko bat egin. Ondoren, Zirko Mundialean kalejira zaratatsa eta alai egingo dugu herrian

edo gogoko dituzten besteetan bat. "Hauetak pertsonalaren bat, gure gogoko dituzten besteetan bat

“ Gure asmoa adin guztietarako festa antolatzea da



menu ezberdinak esgoko dira). Izango duzue alarriaren herri bururako Txin Txin Txin Txin zehaztu ahal. Hala ere edozein zalantza edo izanez gero, jo ezazue lasai Ttakunera (943 371148).

**Aria**  
Ibilbidea amaitu ondoren, nahi duenak aukera polita izango du jantziak jantziak, alai antolatu nahi batuzko Zirko Mundialeko "artista" guztien-tzat. Oraindik erabat zehaztu gabe dugu lekua eta prezioa izpiritu eta heldu diezatogun (haurtzatzaiko eta helduentzako bertze).

**Mozorroto dezagun herria guztion artean!**


Denek eduki dezakegu zer egina inauteri hauetan. Jantziak prestatzen, dekorazio lanetan, musika prestatu eta jartzen, aurkezle lanetan, boleratzen...  
Honetz gain, eta nahiz eta desfilean parte hartu ez, deialdi bereziki bat egin nahi dugu herriarekin beratan balkoiak eta lehoiak dekoratzen dituzten herria inauterietan giroan burutzeko.

Nahikoa da koloredun zapi edo oihalzati baizuk zimzilkatzea puzika baizuekin, serpentinekin, zimaren bat... bakoitza eskura duenarekin. Modu eraz eta merke batean bakun eta polit utzi genitezake etxeoko balkoi eta lehoiak.

**Denari eta tabernari deialdia**

Deialdia ez diegu herriarekin bakarrik egin nahi. Bide batez, denak komertzio eta tabernari ere beratan erakutsi lehoiak eta espazioak dekoratu dituzten are eskatu nahi diegu.

Kalera alera ondoko, lehoi, balkoi eta eskapateak dekoratuta badaude, inauterietan giroa suspertu eta bizirik egiten da, horrigaitik egiten dugu deialdia, ez da zaila eta tragarri alaituko luke herria.  
Konpartsaik eta desfileak antolatu dituzten elkarteei, mozorroaren duren laur eta helduei eskertuko dute!  
Giroto dezagun denon herria inauterietan, apaindu dezagun eta dolore-dolore uzti!!!



# Didgeridooarekin jolasean

- Australiako aborigenen tresnarekin doinu bereziak atera zituen Iban Nikolaik Jalgin
- Haizezko musika instrumentu zaharrena dela uste da termitek zulatutako enbor hutsa

Didgeridoo musika tresna australiarraren berezitasunak eta ateratzen duen doinu bitxia ezagutzeko aukera izan zen ostiral gauean Jalgin. Jam saioan Iban Nikolai didgeridoo joleak parte hartu zuen herriko musikariekin batera. Normalean, Samar taldeko Javi Area, Pascal Gaina, Ritxi Salaberria edota Iñaki Salbador bezalako musikari ezagunekin aritzen da Iban Nikolai, baina herriko batera, gitarra eta baxu joleen ondoan ere emanaldi bikaina osatu zuen.



Iban Nikolaik Jalgin emanaldi ikusgarria eskaini zuen ostiral gauean herriko musikariekin batera Ttakunek antolatutako Jam sesioan.

## TXINTXARRI

Iban Nikolai Oiartzungo musikaria 1997 urte inguruan didgeridooa jotzen hasi eta hiru disko argitaratu ditu bakarlarri gisa: Yurlunggur (2002), Didgeridoo Live (2003) eta Didjeridu Hotsak (2003) eta hainbat kontzertu eman ditu, azkena ostiralean Jalgi tabernan. Nabaritu zen Nikolaik gustuko duela zuzenean jotzea. Bere bisita baliatuz, galdera batzuk egin genizkion.

### Duela zenbat urte ezagutu zenuen didgeridooa?

Orain 15 urte ezagutu nuen eta duela hamar urte hasi nintzen jotzen. 16 urterekin Londonera joan eta han ikusi nuen lehenengo aldiz; taberna batean kontzertu bat zen eta taldeko batek didgeridooa jotzen zuen. Asko erakarri ninduen soinua eta instrumentuak. Lau urte berandua go berritua joan nintzen, jada han bizitzera eta orduan, 20 urterekin, hasi nintzen jotzen.

### Zerk liluratu zituen bere atzetik joateko?

Nik uste, soinua. Soinu oso erakargarria da, grabea. Ez da erreza esplikatzen, ez dakit nola azaldu, baina zerbaite harrapatzen zaitu eta...

### Inprobisazioak leku asko du zure kontzertuetan, ezta?

Bai, asko inprobisatzen da didgeridooarekin. Haizezko instrumentu bat izan arren, perkusiozko instrumentu bat bezala har daiteke, eta perkusiozko instrumentu batekin egiten diren erritmoak egin daitezke. Erritmoak hor daude baina asko inprobisatzeko aukera ematen du.

Ostiralean ez zen taldearekin etorri, baina Lasarte-Oriako musikariek ondo lagundu

zioten Australiako aborigenen musika tresnari soinu bereziak ateratzeko. Ibanek Jalgiko Jam sesioetan izaten den berotasuna nabaritu ahal izan zuen. Lau didgeridoo eta multi-efektu deituriko aparatua ere erabili zuen didgeridooari beste soinu batzuekin bilatzeko. Kontzertua amaitutakoan jendea gehiagoren gogoarekin geratu zen. Motza egin zitzaion askori bi ordu inguru iraun zuen kontzertuak eta gehiago jotzeko eskatu zuten.

### Aborigenekin ikasia

Iban Nikolai gaur egun irakaslea da, didgeridooaren erabilerari irakasten du kontzertuak ematearekin batera, baina aurretik, didgeridooa ondo jotzen ikasteko hainbat ikasta-

ro egin ditu eta aborigenekin ere egon zen Australian: "gehienbat" jotzeko era tradizionala ikasi zuen, digeridooa eta makilak. "Han aborigenek erabiltzen dutena hori da, didgeridooa, makilak eta ahotsa, ez dute beste musika tresnarik". Ibanek australiar makilak ere jotzen ditu eta, bestalde, duela urte bete tronoa jotzen hasi zen.

Didjeridooa, munduko haizezko instrumenturik zaharrenetakoa da, dudarik gabe. 20.000 bat urte badi-tuela uste da, Australiako kobazuloetako irudi batzuetan agertzen baita, eta australiar aborigenek diotenez 40.000 urtetik gora izan ditzake. Termitek naturalki zulatutako enbor huts horri

zulotik putz eginda soinu grabe bat ateratzen da. Ez daude bi didgeridoo berdin. Bakoitzak bere ahots propioa du. Luzeran 1.5 metrotik 2 metrotarra neurtzen dute eta diametroak 2 eta 5 zentimetro artekoak izaten dira.

### Naturak sortua

Aborigenen musika tresna izanik, naturarekin lotura estua du. Aborigenek eurek diotenez, didgeridooaren hotsa natur-soinu guztien fusioa da: naturak emaniko tresna da eta naturako soinua imitatzen du.

Europako hainbat erakus-taldietan izan da Iban Nikolai eta Australiako aborigenek sortutako Garma festibalean ere kontzertu bat eskaini zuen. •

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zero Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Egunero

### Erakusketa

GORPUTZEKO UMOREAK, Ilitz Olano Martin herritarraren margoen erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



## Astelehena, 19

### Danborrada

LANDABERRI ETA SASOETA IKASTOLETAKO haurrek beraien danborrak astinduko dituzte. Landaberri ikastolan, Garai-koetxea eraikinean eta Sasoe-ta-Zumaburu ikastetxeak Sasoe-ta eraikinean, biek ere arratsaldeko 16:00etatik aurrera.



## Gatibu gorputzaren barruan

LA ESCAFANDRA Y LA MARIPOSA Julian Schnabel zuzendariaren filma eskainiko du Okendo Zinema Taldeak. Filman 43 urte zituela, Jean-Dominique Bauby, Elle aldizkari frantseseko erredaktore buruak, enbolia masibo bat pairatu zuen. Koma egoeratik 20 egun beranduago irtetzen da, gatibutasun sindromearen biktima delarik, guztiz paralizatua dago, ezin du jan mugitu, hitz egin edo arnastu laguntzarik gabe. Kanpoaldearekin harremanetan jartzeko duen modu bakarria begi ezkerrekin keinu egitea da.

OSTEGUNEAN, HILAREN 22AN  
MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN  
SARRERA 4,15 EURO, GAZTELANIAZ

## Igandea, 25

### Zinea

MISION EN MOCLAND haurrentzako filma. Sarrera: 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ



## Ostirala, 30

### Kontzertua

DONOSTIA ENSEMBLE TALDEAK eskainiko du kontzertua Danok Kide elkarteak antolatutako IV. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.



## Larunbata, 31

### Antzerkia

Zer duzu negarrez, Marie? haurrentzako antzerkia Marie Jongh konpainiaren eskutik. Sarrera: 3, 15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ



Familia osoari zuzendutako ikuskizuna da. Aktore lana eta txontxongiloen erabilera uztartzen dira bertan. Istoriarioan haurtzaindegi bateko jabeak eta haren langile batek haur gaitzo batekin duten harremana jorratzen da. Neskailari ezin diote neurria hartu eta gainera, gainontzeko umeen zainketa zailtzen du. Edozelako trikimailuak erabiliko dituzte neskato deabrua mendean hartzeko, eta azken arte ez dira ohartuko haurrak maitasun falta izugarria duela.

## Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irrati programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.  
Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Ludotekako bigarren matrikulazio-epaia zabalik

Amarau Ludotekako bigarren matrikulazio aldia zabalik dago. Ikasturteko lehenengo hiruhilekoaren ondoren, berriro zabaldu da matrikulazioa egiteko aukera ekaina bitartean. Bi matrikula mota egin daitezke, hurrengo hiruhileko-arena (hau da, martxora arte) edo sei hilabetekoa (ekainera arte). Interesa duenak bertatik pasa daiteke ludoteka ikustera (Ola Kaleko 1 zenbakian) eta informazioa jasotzera. Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara dago zabalik, egunero.

### Sahararen aldeko Euskal Karabana

Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Aldeko Elkarteak kideek Sahararen Aldeko Euskal Karabanarako elikagai bilketari ekingo dio eta hilak 23an amaituko dute. Karabana honek elikagaiak errefuxiatuen kanpamenduetara eraman nahi ditu: arroz, azukrea, lekadu-

nak, sardinak, atunak eta konpresak. Ekimen honetan parte hartu nahi baduzue herriko eta Añorgako ikastetxeetan, supermerkatuetan eta Emakumeen Zentro Zibikoan edukiontzia aurkituko dituzue. Dirua bidali nahi duenarentzat kontu korrontea ireki dute Euskadiko Kutxan, 3035 0080 94 0800054177.

### Bai Euskal Herriaren zozketa

Bai Euskal Herriak antolatutako zozketaren zenbaki irabazlea 11.352 da eta Arrasaten saldua izan zen.

### Erketzeko konpartsaren entsaio eguna aldatu da

Orain 2 urte ekialdetik etorritan arabiarrekin eta beraien dantzen txundituta geratu baziren eta iaz, Rafaella Carrarekin gorputzeko hezur guztiak astindu bazenituen... ez pentsatu gehiago eta animatu zaitze gure karrozan parte hartzera, ondo pasako duzu eta nahi adina

dantzatu. Izena emateko Erketzeko lokalera joan Zumaburu ikastolan. Entsaioak larunbatetan izango dira 15:00etatik 16:30era urtarrieko 17, 24, 31an eta otsailko 7 eta 14an.

### Nazimenduko lagunak eskerrak

Nazimenduaren lagunak taldeak eskerrak eman nahi dizkie abenduaren 24ean egindako eskean dirua eman zuten guztiak. Mila esker! Dirua Yankee II Nikaraguako herrixkara bideratuko da Alejandro Romoren bitartez.

### Euskal Inauterien entsaioak

Euskal Inauterien konpartsako antolatzaileak jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHI egotzan (REM ohia) egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Parte hartzeko entsaio egun batean agertzea besterik ez duzue, animatu!!

### Bizilagunen Elkarteak marrazketa eta pintura eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura eskolatan lekua badagoela. Interesa dutenek izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan egin behar dute arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara kulturetxeko bigarren solairuan.

### Udalatik barkamena

Udalak barkamena eskatu nahi die abenduaren 31n egin zen kobraketa baten ondorioz kaltetuak izan diren udal kiroldegiko erabiltzaileei. Akatsa lehenbailehen zuzenduko da kaltetuei kobratutako dirua bueltatuz.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behea

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Sorpresa ederra hartu zuten haurrek anbulantzia ludotekara iritsi zenean. Hasiera batean erdi lotsatuta bazeuden ere, gero ederki ibili ziren anbulantzia miatzen eta jakinminak asetzen.

## Haurrak larrialdietako laguntza ezagutzen

- DYA elkartekoek istripuen aurrean nola jokatu erakutsi zuten Amaraun Ludotekan.
- Anbulantzia bera, sendatzeko tresnak eta sendagaiak ikusteko aukera izan zuten.

Amaraun ludotekako haurrek goiz berezia izan zuten larunbatean. Herriko DYako laguntzaileek anbulantzia bat eraman zuten ludoteka kanpora eta nolakoa den erakutsi zieten haurrei. 4 eta 8 urte arteko haurrek ikusi zuten anbulantzia zein tresna, material eta sendagai eramaten diren eta horiek zertarako, zein kasutan eta nola erabiltzen diren ezagutzeko aukera ere izan zuten. Gero tresneria eta sendagai garrantzitsuenak probatzeko eta beraien artean sendatzen aritzeko aukera izan zuten. Azken finean istripu edo larrialdien aurrean lehen laguntza emateko lehenengo pausua izan zen atzokoa.

### TXINTXARRI

Lasarte-Oriako DYA sorospen zerbitzuko laguntzaileek anbulantzia eraman zuten larunbatean Ola kalean dagoen Amaraun Ludotekako atera. Bertan larunbat goizetan elkartzen diren haurrentzat ikuskizuna izan zen hori eta gainera, istripu edo larrialdien bat gertatzen denean, zaurituari lehen laguntza emateko moduari buruzko lehen ikasgaiak jaso zituzten haurrek.

Larrialdiak gertatzen direnean sorospen zerbitzuek izaten duten jokabidearen eta

larrialdiei ematen zaien erantzunaren berri izan zuten haurrek zuzen zuzenean.

Horrela DYako laguntzaileek, Korok eta Arantzak, anbulantzia erabiltzen diren gauzen berri eman zien. Gero, besteak beste, kamilla, lepoko, benda, guraize, beta-dine edota beste zenbait sendagai, ... eta abarrekin jolasteko aukera izan zuten Amaraun ludotekan elkartu ziren haurrek.

Arrakastarik handiena kamilla eta eskilarak jaisteko aukeri izan zuten; banan-banan nahi zuten haur guztiek probatu ahal izan zituzten biak.



Larrialdietako lehen laguntza ezagutzen hasi dira Ludotekako haurrek.

### *Anbulantziko tresna eta sendagaiak zertarako, zein kasutan eta nola erabiltzen diren ezagutzeko aukera izan zuten*

Batak besteari larrialdietako sendaketak eginez, sorospenean lehen pausuk emateko aukera izan zuten.

Oso ondo pasa zuten goizeko 11:30etik aurrera egin zen erakustaldian. Haurrek ez zuten detailerik galdu nahi

eta argazki kamara eskuan hartu eta Sara Izagirrek, Angeli Gonzalezek eta Naia Gurrutxagak argazki ederrak atera zituzten lagunei. Gurasoren batek susto galanta ere hartu zuten anbulantzia ludotekaren atariak ikustean!

Ludotekako kideek beraien eskerrik beroan eman nahi dizkiote DYari, Korori eta Arantzari emandako laguntzagatik. •